

ARGITALPENAK EGITEKO DIRU- LAGUNTZAK OINARRIAK 2024

ESKAERAK AURKEZTEKO IRIZPIDEAK

Proposamenen aurkezpena

- Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren (EHAEO) Gipuzkoako ordezkariitzako Zuzendaritza Batzordeak erabaki du argitalpenak egiteko diru-laguntza jaso dezaketen proposamenak aurkezteko epea irekitzea, 2024ko kultura-aurrekontuaren baitan.
- **LAU MILA EUROKO (4.000 €)** partida bat egongo da, eta argitalpen bakar baterako erabiliko da.
- Lanaren egileak **Gipuzkoako EHAEOean** egon beharko du **kolegiatua** eta bera izango da proposamena aurkezten duena. Lana taldean egiten bada, nahikoa izango erredaktoreetako bat, Gipuzkoako EHAEOk kide izatea.
- Lanak aurrez aurre Gipuzkoako EHAEOean (behin behineko helbidea: Urumea pasealekua, 2 – behea – Donostia), edota posta elektroniko bidez liburutegia@coavngipuzkoa.eus helbidean aurkezteko ahal izango dira.
- Proposamenak aurkezteko epea **2024ko martxoaren 29an amaituko** da.

- Proposamenak honako hizkuntza hauetako batean egongo dira: euskara, gaztelera edo ingelesa. Nahikoa izango da argitalpena hizkuntza bakar batean argitaratzea.

Diru-laguntzaren xedeak eta gaiak

- Ekarpen ekonomiko honen xedea da Gipuzkoako ordezkartza osorako interesa duten postprodukzio, edizio-lan, liburu, ikerketa, ikasketa edo beste diziplina edo arte batzuetan parekagarriak diren gastuetan laguntzea.
- Aurkezten diren proposamenek zerikusia izan beharko dute arkitekturarekin, etxebizitzarekin, hirigintzarekin, arkitekturaren historiarekin edo aipatutako zeharkako eremu edo sektoreko beste alderdi batzuekin.
- Azken finean, argitalpen-prozesuen berezko kostuekin lagunduko du diru-laguntza honek kontzeptu zabalenean ulertuta, lan horiek ikusarazteko eta, hala badagokio, kolektiboaren eta/edo publikoaren artean zabaltzen laguntzeko.
- Ez da laguntza honen xedea dedikazioarekin parekatzen diren kontzeptuen kostuan laguntzea, hala nola, lana egiteko soldatak edo ordainsariak.
- Beste lan batzuetarako, testuen edo liburuen argitalpena berez ez bada, aplikatuko den irizpidea laguntzaren xedearekin parekatuko da.

Aurkeztu beharreko agiriak eta esleipenerako irizpideak

- Lana amaituta egon behar du, eta postprodukzio-, edizio- eta argitalpen-lana egitea besterik ez da geratuko.

- Edizio eta argitalpen faserako aurrekontu bat aurkeztu beharko da.
- Ekarpen horren beharra justifikatzen duen azterketa ekonomikoa aurkeztuko da, proiektuaren bideragarritasuna egiaztatzeko.
- Proiekturako edo lanerako eman diren edo ebazteko dauden beste laguntza, diru-laguntza edo babesei buruzko informazioa eman beharko da.
- Oinarrietan erantsitako excel fitxa beteta aurkeztuko da, argitaratzeko proposamenaren alderdi garrantzitsuenak deskribatzea helburu.
- Antzeko ezaugarriak dituzten bi proposamenen aurrean, orain arte EHAEOn Gipuzkoako ordezkariaren diru-laguntzarik jaso ez duen pertsonak izango du lehentasuna.

Laguntzak ematea. Esleitutako zenbatekoaren ordainketa.

- Epe barruan aurkeztutako proposamenak Zuzendaritza Batzordeko kideek aztertuko dituzte. EHAEOn Gipuzkoako ordezkarietako Zuzendaritza Batzordeak laguntza nori ematen zaion erabakiko du, jasotako proposamenen artean.
- Diruz lagundutako jarduerak gehienez ere **12 hilabeteko epean burutu** beharko dira, ebazpena ematen denetik hasita.
- Diru-laguntza eman dela jakinarazi ondoren, hura ordainduko da. Deialdia eman gabe gelditzen bada, Zuzendaritza Batzordeak antzeko ekimenari esleitu ahal izango dio ezarritako zenbatekoa.

Diruz lagundutako ekintzen jarraipena eta horien zuriketa

- Argitalpena bukatutakoan, hori egin izanaren **justifikazio ekonomikoa** aurkeztu behar da.

- Gastuak zehaztuta eta justifikatuta egon beharko dira.
- Argitalpena amaitzean, 50 kopia emango zaizkio EHAEOn Gipuzkoako ordezkariari, liburutegian gorde ditzan eta/edo liburutegiaren jardunari lotuta erabili ditzan.

Kontraprestazioa

- EHAEOn Gipuzkoako ordezkariaren logoa behar bezala ikusteko moduko neurriekin agertu beharko da argitalpenean. Inprimatu aurretik maketa bidaliko da oniritzia jasotzeko.
- Liburuaren lehen aurkezpena EHAEOn Gipuzkoako ordezkariari izango da, edota honekin koordinatuta egongo da, komunikazioari eta hedapenari dagokienez: prentsa-oharra, aurkezpenaren antolaketa edo laguntza...
- Diru-laguntzaren onuradunak Gipuzkoako EHAEOn aipamena egin beharko du diruz lagundutako argitalpena hedabideetan, sare sozialetan edo beste bide batzuetan zabaltzen duenean. Gainera, diruz lagundutako argitalpenaren inguruan bideoak, kartelak edo bestelako originalak sortzen badira, Gipuzkoako EHAEOn logotipoa edo aipamena agertuko dira.
- EHAEOk eskubidea izango du diru-laguntza eman duen argitalpenaren berri emateko.

Azkena

- Deialdi honetarako proposamenak aurkezteak oinarriak onartzea dakar.